



AGINDUA, JAURLARITZAKO LEHENENGO LEHENDAKARIORE ETAKULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, UZTAILAREN 28KO 99/2020 DEKRETUA, EUSKARAREN A HOLKU BATZORDEARI BURUZKO DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN IZAPIDETZARI HASIERA EMATEN DIONA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 2024ko azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 2.3.b) artikuluan adierazten denez, Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailari atxikitzen zaio, besteak beste, Euskararen Aholku Batzordea, eta, zentzu berean, Euskararen Aholku Batzordea Kultura eta Hizkuntza Politikari atxikita egongo dela adierazten da uztailaren 28ko 99/2020 Euskararen Aholku Batzordeari buruzko Dekretuaren 1.2 artikuluan.

Halaber, aipatutako egitura-dekretuaren 13.2.g) artikuluan ezartzen denez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio, besteak beste, azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen erabilera arautzekoa, eta gainerako xedapen osagarriak egoki garatzen eta aplikatzen direla zaintzea, hargatik eragotzi gabe administrazio beste organo batzuek horretarako berariaz izendatuta dituzten egitekoak.

Euskararen Aholku Batzordeari buruzko 99/2020 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Euskararen Aholku Batzordea azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 29. atalean aurreikusitako harreman-organoa da, hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertze, bideratzeko eta koordinatzeko helburua duena.

Dekretu horretan adierazten da Euskararen Aholku Batzordeak bere jarduera gauzatzeko Batzorde Osoa eta Batzorde-atal bereziak izango dituela.

Erakunde publiko nahiz pribatuen lankidetzaren sustatzea funtsezko elementua da batzordearen helburuak betetzeko, ikuspegi anitza, parte-hartzailea eta sektorearen errealitatera egokitua bermatze aldera. Horretarako, komenigarritzat jotzen da Euskararen Aholku Batzorde Osoaren osaera aldatzea, eta hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artean hautatutako pertsonen kopurua handitzea, interesdun diren eragileen parte-hartzea errazteko eta ekarpenak modu egituratuagoan jasotzeko.

Hori dela eta, Euskararen Aholku Batzordearen osaera aldatzeko uztailaren 28ko 99/2020 Dekretua, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa, aldatu egin behar da.

Dekretu-proiektu berria egiteko eta izapidetzeko prozedurak arau hauetan jasotako aginduak bete beharko ditu:

- 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena.
- Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2025eko maiatzaren 13koa, arau-xedapen orokorrek egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredu onartzen duena, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022



Legearen arabera (maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 29ko EHAA, 100. zk.).

- c) Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak, Gobernu Kontseiluaren 2023ko uztailaren 11ko Erabakiaren bidez onartuak (78/2023 Ebazpena, uztailaren 28koa, abuztuaren 7ko EHAA, 149. zk.).

Ildo horretan, XOEPLk 12.1 artikuluan ezartzen duenez, proiektaturiko arau-xedapenaren gaia dela-eta eskumena duen saileko titularraren aginduz hasiko da prozedura hori, eta testu hori da araua egiteko prozeduraren oinarritzko oinarria eta ardatz nagusia.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta prozedura hasteko aginduan jaso beharreko edukia zehazten duen Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen 13.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Euskaren Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren osaera aldatzeko, uztailaren 28ko 99/2020 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea onartzea, agindu honen eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena.- Egin beharreko azterlan, txosten eta kontsultak egitea, araua egiteko eta asmatuko dugula eta legezkoa izango dela bermatzeko.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

ERANSKINA

Arauaaren xedea

Dekretu-proiekturen xedea 99/2020 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa aldatzea da, zehatzago 3. artikuluan, Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren osaeran dagoen j) atala.

Proposamenaren egokitasuna, arautzeko aukerak eta arau berriaren beharren justifikazioa

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organiko eta funtzionala finkatzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuan jasotakoaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio, besteak beste, azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen erabilera arautzekoa, eta gainerako xedapen osagarriak egoki garatzen eta aplikatzen direla zaintzea, hargatik eragotzi gabe administrazioiko beste organo batzuek horretarako berariaz izendatuta dituzten egitekoak.

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, 29. artikuluan, euskararen erabilerearen normalizazio-lanean laguntzeko harreman-organoa eratzea aurreikusten du, esandako legea ezarri eta gauzatzeari begira erakundeen ahaleginak aztertu, bideratu eta koordinatzeko, hain zuzen. Lehenago, urtarrilaren 11ko 5/1982 Dekretuak jada Euskararen Aholku Batzordea sortu zuen.

Euskararen Aholku Batzordea Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikita dago, uztailaren 28ko 99/2020 Dekretuak, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoak, 1.2 artikuluan adierazten duenez. Dekretuaren arabera, Euskararen Aholku Batzordea azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 29. atalean aurreikusitako harreman-organoa izango da, hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko. Euskararen Aholku Batzordea Kultura Sailari atxikita egongo da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, baina bere egitura organikoan txertatu gabe.

Bere sorreratik Euskararen Aholku Batzordeari dagokion araudiak hainbat eguneratze izan ditu, indarrean dagoen uztailaren 28ko 99/2020 azken Dekretua onartu arte.

Aipatu Dekretuan egindako aldaketa nagusiak Batzordearen funtzionamendua hobetzeko izan dira, besteak beste, Batzordearen organoak murriztu, batzordekide kopurua murriztu eta funtzionamendu-arau batzuk aldatu. Horrela, Batzorde Osoko kideen kopuruari dagokionez, hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artean hautatutakoen artean egin izan da murrizketa haundiena; hau da Dekretuan ezarritakoa:

Hamabost kide, hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artean hautatuak:

- 1) *Legebiltzarrak izendatutako bost kide.*
- 2) *Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak izendatutako hamar kide. Euskararen hizkuntza-komunitatearen lurraldeetako ordezkariak izateari begiratuko zaio.*

Egia bada ere azken urte hauetan Batzordearen funtzionamendua hobetu egin dela, kideen kopuruari dagokionez, berriro aldaketa egiteko beharra ikusten da.

Izan ere, 99/2020 Dekretuan Batzordearen organoak murriztu baziren ere, erakunde publikoen pisuak gehiegizkoa izaten jarraitzen du, hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako gainerako kideen kaltetan, eta hau ez da egokia euskararen indarberritzea helburu duten erakunde nahiz eragile sozialen arteko lankidetzarako, nahiz gizarteak dituen behar berriei erantzuteko.

Bestetik, euskararen indarberritze prozesua hazkunde bidean da, zalantzarik gabe. Etxeko edo ikastetxeko espazioez gain, eskolaz kanpoko jardueretan, kirolean edo lanean euskarak izan duen lekua handitzen ari da. Baina aldakortasun betean dagoen gizartean bizi gara (lurrealde barneko zein lurrealde arteko migrazio mugimendu ugarien ondorioz, kultura aniztunagoak nahiz eleaniztunagoak izango gara; hirietan bizi da pertsona gehien, baita euskaldun gehienak ere; gizakion arteko harreman modu berriak sortzen ari dira, aurrez aurrekoak zein digitalak, hizkuntza aniztasuna inoiz baino presentzia handiagoa izaten ari da), eta euskarak babesguneak behar ditu:

Azken urteetan, beraz, euskararen normalizazioan eragin beharreko esparruak aldatzen eta zabaltzen joan dira.

Horregatik guztiagatik egokia ikusi da Euskararen Aholku Batzordeko Batzorde Osoko hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artean hautatutako kopurua handitzea, arlo guzti horietan eragin nahi bada. Horrela, horiek hamar kide izatetik, hamabost kide izatera pasako lirateke

Horretarako ez dago beste erregulazio-alternatibarik uztailaren 28ko 99/2020 Dekretua, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa, aldatzea baino.

Bideragarritasun juridiko eta materiala

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6.2 artikulua araberak, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio hizkuntza normalizazioaren eskumena.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 2024ko azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuan agindutakoari jarraituz, Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailari atxikitzen zaio, besteak beste, Euskararen Aholku Batzordea.

Halaber, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen 12. Artikuluak ezartzen du xedapen orokorrek egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren eskumena dela.

Ordenamendu juridikoan izango duen eragina

Dekretu berriarekin, aldatu egingo da uztailaren 28ko 99/2020 Dekretua, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa; zehazki, 3. artikulua, haren osaerari buruzkoa, baina horrek ez du inolako eraginik izango ordenamendu juridikoan.

Genero-ikuspegitik arauak izan dezakeen garrantzia

Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideak onartzen ditu.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 6/2022 Legearen 13.1.c) artikulua ezartzen duenez, generoaren arabera eraginaren aurretiazko azterketak kontuan hartuko dira, eta proiektatutako arauak generoaren ikuspegitik duen garrantziari buruzko lehen balioespen arrazoitu bat egingo da.

Ildo beretik doa 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, 19. eta 20. artikuluetan, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioari eta desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriei dagokienez.

Ez da aurreikusten arauan proiektatutako eskumen lekualdaketak ondorio positiborik ez kontrakorik izan ditzakeenik emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerrarazteko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

Aurrekontuetan izango duen eragina

Osaeraren aldaketak aurrekontuetan aldaketa txikia ekarriko du; uztailaren 28ko 99/2020 DEKRETUAK, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoak, bere 9. artikuluan honakoa xedatzen du:

9. artikulua.- Euskararen Aholku Batzordeak eta haren batzorde-atal bereziek egindako lanak eragindako gastuak ordaintzea.

Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko eta haren batzorde-atal berezietako kideek eskubidea izango dute Zerbitzuagatiko Kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitako kalte-ordainak eta konpentsazioak jasotzeko.

Honengatik, kide kopurua handitzean, kalte-ordain eta konpentsazioen kopuruak ere gora egingo du.

Onurak eta administrazio-kargak

Herritarrei dagokienez, arau berriak ez diete administrazio-kargarik sortuko.

Enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina

Dekretua, Administrazio Orokorraren esparruan osaera aldaketa egitera mugatuko da; beraz, proiektatutako arauaren xedeak ez du inolako eraginik enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan, eta, horregatik, ez da beharrezkotzat jotzen *Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako enpresa-inpaktuari buruzko txostena egitea.*

Xedapenak uki ditzakeen subjektuak eta antolakunderik adierazgarrienak

Ez da beharrezkoa izango Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena egitea, arau-xedapen orokorra egiteko proiektuak ez baitie udalerrien eskumen propioei eragiten, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Testu artikulatuaren itzulpenetarako edo idazketa elebidunerako teknika

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 6/2022 Legearen 4.j), 5., eta 14. artikuluetan ezartzen den bezala, hizkuntzen berdintasuna araugintza-prozesuaren kalitatea bermatzeko printzipioa modu egokian betetzeko, izapidetze organoak xedapen proiektuaren idazketa elebiduna egingo du prozedura osoan zehar, bere bitarteko propioekin, itzulpenetara jo gabe.

Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, arau-proiektua bi hizkuntzetan idatziko da publizitate ofizialaren ondorioetarako.

Helburu horrekin, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu aurretik, 6/2022 Legearen 27.3 artikulua dioenari jarraiki, euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuaren zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsiok zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

Entzunaldia eta jendaurreko informazioa, negoziazio kolektiboa eta beste administrazio batzuei kontsulta egitea

Ez da beharrezkoa ikusten 6/2022 Legearen 17. artikulua aurreikusten duen entzunaldi eta jendaurreko informazioa egitea; izan ere, dekretu-proiektuak ez die zuzenean eragiten herritarren eskubide eta interes legitimoiei.

Ekimena salbuetsita dago alde zuzeneko kontsulta, entzunaldi- eta jendaurreko informazio-izapideetatik, negoziazio kolektibotik eta autonomia-erkidegoko beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapideetatik; izan ere, antolamendu-izapide hutsa da, eta ez die eragiten beste administrazio batzuei, 6/2022 Legearen 8. eta 9. Artikuluen arabera.

Bidezkoztat jotako izapideak eta txostenak

Prozeduratik datozen izapideak eta txostenak, jarraian zehazten direnak, izapidetze elektronikorako "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez egingo dira, erabaki honen eranskin gisa agertzen den Xedapen Orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredia erabakitzen duen Erabakiarekin bat etorritik, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritik.

Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, lehenik eta behin, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredia onartzen duen erabakia

argitaratzea xedatzen duen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenaren eranskinean xedatutakoarekin bat etorriz, hasteko agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu da.

Ondoren, arau-xedapena idatziko da, kontuan hartuta hasteko agindu honen edukia eta aurreikusitako araudiaren zehaztasuna eta legezketasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitza. Proiektua idatzi ondoren, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak onartu beharko du alde zurretik, 6/2022 Legearen 15. artikulua aurreikusten duen bezala. Xedapen horrek ezartzen du xedapen orokorren proiektuek prozedura hasteko agindua eman duen organoaren alde zurretik onarpena izan beharko dutela, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin zurretik.

Alde zurretik onarpenaren agindua eta proiektuaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan ere argitaratuko dira.

Gainera, honako izapide eta txosten hauek erantsiko zaizkio espedienteari:

- a) Proposatutako arauketak eragin diezaiekeen sailei kontsulta egitea.
- b) Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 12.1.n) artikulua araberaz.
- c) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan eta, 6/2022 Legearen eraginez aldatutako, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 oinarriko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.
- d) Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egin ondoren, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuari eta 6/2022 Legearen 4.h) eta 14.4 artikuluei jarraikiz, eta kontuan hartuta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakia, zeinaren bidez onartzen baitira genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen desberdintasuna ezabatu eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak, Emakunderi bidaliko zaio.
- e) Legezketasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak emana, 6/2022 Legearen 22. artikulua araberaz.
- f) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, honako hauetan ezarritakoaren araberaz: (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. Artikulua, (ii) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen 464/1995 Dekretua, (iii) 6/2022 Legearen 23. artikulua; eta (iv) Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikulua.

Xedapen-egitasmoak ez du berekin Europar Batasunaren aurrean burutu beharreko inolako izapiderik.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez zaio arau-proiektu honi buruzko kontsultarik egingo, ez baitago Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko 9/2004 Legearen 3. artikuluan araututako eskumenen artean.

Beharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak egindako legezketasunari buruzko txostena, 6/2022 Legearen 22. artikulua araberan.

Dekretu-proiektua izapidetzen amaitu ondoren, bere onarpenerako Gobernu Kontseilura igorri aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, 6/2022 Legearen 24.2 artikuluan adierazitako edukiarekin, aurrekariak eta egindako izapideak aipatuz.

Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila izendatu da prozedura izapidetzeko organo arduradun; zehazki, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza.

Urteko araugintza-plana

Agindu hau sinatzen den datan 2026ko Urteko Araugintza Plana Gobernu Kontseiluan onartu gabe badago ere, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailari dagokion araugintza-planean jasota dago Euskararen Aholku Batzordeari dagokion Dekretua aldatzeko proiektua.

Argitalpena

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarriko eredu onartzen duen erabakia argitaratzeko Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenaren eranskinean xedatutakoaren arabera, hasteko agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuko da.

Era berean, alde aurreko onarpenaren agindua eta proiektuaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa iragarki-taula elektronikoa ere argitaratuko dira.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera, lege horretan xedatutako publizitate-agindua betetzeko, proiektuaren testua Legegunean argitaratuko da.

Azkenik, Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 64. artikulua araberan, arau-proiektu hau onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.